



www.begiko.com

© Testua: 1996, JUAN ESTEBAN URKIXO

© Argitalpen hau:

2019, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-17-9

Lege-gordailua: M-16314-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Bigarren argitalpena: 2019ko ekaina

Hamaseitik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Bihotz ausarta

Joanes Urkixo

Azaleko irudia: Mikel Casal

begiko

Joanesi eta Urtziri

Triste, goibel eta ilun

Urtzi eta Oihane eskutik heldurik zihoazen belar eta lore artetik. Kilkerak kir-kir ari ziren eta txoriak txio-txioka. Eguzkiak urrezko distira ematen zion Oihaneren aurpegi gozoari. Inor ez zegoen inguruan eta Urtzi munduko mutilik zorionsuena zen une hartan. Oihane neska eder zoragarria konkistatua zuen, azkenean.

Makurtu eta, txiribita bat harturik, neskari eskaini zion. Hark onartu, usaindu eta irribarre gozoa itzuli zion. Urtzi Oihaneren aurpegiari begira geratu zen, leloturik.

—Urtziii! —entzun zen urrundik aitaren ahotsa.

Urtzik bere ingurura begiratu zuen.

—Ene, aita! Ez, ezin da izan. Zertan ote dabil aita inguru honetan?

—Urtziii! —berriro aitaren ahotsa.

Urtzik Oihaneri begiratu zion. Bat-batean, nes-
karen aurpegia bihurtu, zimurtu, urtu eta aitare-
na bilakatu zen.

—Ba... ba... baina... zu ez zara Oihane...?

—Zer Oihane eta zer *oihune!* Non utzi dituzu
nire CDak?

8 Aitaren aurpegia hurbildu egin zitzaion. Oso
haserre zegoela zirudien.

—Orduan... ametsetan nago!

—Bai, ametsetan zaude eta jaikitzeke ordua
duzu! Ea, nire CDak.

Urtzik erabat ireki zituen begiak. Ohean zegoen
eta aita ondoan zuen zutik, piperra baino erreago.
Hura zen ametsetatik esnatzeko modua, gero!

—Tira, bada, zain nago.

Artean burua astun-astun zeukala, Urtzik hor-
maren kontra jarritako mahaia seinalatu zuen.
Han, liburu eta paper artetik, aitak Beatles, Neil
Young eta Itoizen CDak erreskatatu zituen. Gero,
beraren ondora itzuli zen, CDak eskuan zituela
mehatxuka.

—Hau azkena izan da! Entzun al duzu? Ha-
maika aldiz esana dizut nire CDak ez ukitzeko.
Kokoteraino nago, honezkero!

Ondoko ohean Oskar ere esnatzen hasi zen.

—Zer gertatzen ari da? Zer egin du Urtzik?

Urtzik ez zion jaramonik egin eta ezjakinarena egiten saiatu zen.

—Zure CDak ez ukitzeko? Bada, ez naiz gogoratzen, aitatxo. Noiz esan didazu...?

Baina aita gorri-gorri ipintzen zenean, jai zuen edozein taktikak. Orduan, damutuaren aurpegia ipini eta ekaitza baretu arte itxarotea beste erre-mediorik ez zen geratzen.

—Ez niri adarra jo, gero! —mehatxatu zuen aitak—. Zuk badituzu zeure CDak. Beraz, entzun horiek eta utzi bakean nireak.

—Baina, aita —erantzun zuen Urtzik, kexuka—, honezkero ez naiz umea, laster hamalau urte egingo ditut. Eta, gainera, musika hori oso ona da ikasteko...

—Ikasteko? —orro egin zuen aitak—. Ja! Txanxetan zabilta, ezta?

—Gezurra! Ez duzu ezer ikasten, beti egoten zara musika entzuten eta poemak idazten —bota zion Oskarrek beste ohetik. Haren anaia Oskarrek zortzi urte zituen eta halako istiluetan ez zuen ezertan ere laguntzen.

—Zuk itxi ahoa, babalore horrek! —bota zion Urtzik haserre.

—Horra! Entzun al duzu? Hobe zenuke liburuak zabaldu, alferkeriatan ibili beharrean. Neu ere ikasi gabe ez nintzen abokatu egin.

Urtzik buruz zekien kalamatrika hura.

10 —Ez, aita —erantzun zuen pazientziaz—, asko ikasten zenuen eta, gainera, goizez bulego batean lan egiten zenuen.

—Eta denak gainditzen zituen ekainean —erantsi zuen Oskarrek.

—Horixe! Denak gainditzen nituen. Zuk, ordea, zer ekarriko duzu hurrengo ebaluazioan?

Berriro ere Oskarrek hanka sartu zuen:

—Informatikan ustela aterako du. Halaxe esan zion Edortari atzo.

—Astakirten hori! Oraintxe ikusiko duzu!

Urtzik ohetik jauzi egin zuen, anaiari zaplazteko bat emateko asmoz. Oskar garrasika hasi zen, ordurako zaplaztekoa hartu balu bezala. Burko bat hartu eta harekin babestu zen Urtziren kolpeetatik.

—Ai, ai, ai ama, ai ama! —hasi zen oihuka eta garrasika Oskar.

—Muturra hautsiko dizut, lerdo nazkante hori! —erantzun zion deiadarka Urtzik.

—Utzi anaia bakean oraintxe bertan —agindu zuen sumindurik aitak, begiak zuloetatik irten beharrean zituela.

Egundoko iskanbila sortu zen logelan segundo batean: Urtzi bere anaiari burkoa kendu nahian, anaia ohe gainean saltoka eta ostikoka, aita Urtziri besotik heltzeko ahaleginetan... Halako batean, zalapartak erakarrita, ama azaldu zen gelan guztiz asaldaturik.

—Ene bada! —hots egin zuen, zur eta lur—. Zer gertatzen ari da hemen, baina?

Hirurak batera erantzuten saiatu ziren. Eta, halakoetan jazotzen den legez, elkar isilaraztearren, zeinek baino zeinek ozenago erantzun zuten.

—Zure seme honek nire diskoak hartu ditu berriro —esan zuen aitak, amari justizia edo eskatzeko moduan—. Ez dut halakorik onartuko!

—Amatxo, amatxo, Urtzik jo egin nau, Urtzik jo egin nau! —esan zuen negarrez Oskarrek.

—Gezurra, gezur galanta, ukitu ere ez dut egin eta! —esan zuen Urtzik eta, gero, anaiari hortz artean mehatxuka—. Kanean harrapatuko zaitut!

—Tira, tira, nahikoa da. Orain bakeak egin eta beti bezain adiskide onak izango zarete. Hirurok, esan nahi dut.

Azken hori doinu bereziz eta aitari begira erantsi zuen. Amaren eragina nabarmena izaten zen aita-semeengan eta hirurek makurtu zuten burua berehala. Ama faltako balitz, astrapalada etengabe biziko lirateke etxeko gizonak, zalantza izpirik gabe. Izan ere, amak beti hitz egiten zuen senonez eta inork ez zion kontrarik egiten.

—Ondo da. Barkatu, Oskar —esan zion Urtzik anaiari, azkenean.

—Barkatu zeuk —erantzun zion Oskarrek.

Aitak, ordea, pixka batean hausnartu zuen, hitz egin aurretik.

—Ados, adiskide onak izango gara —esan zion azkenean Urtziri, bostekoa eskainiz—. Hona zer egingo dugun: hurrengo ebaluazioan denak gainditzen badituzu, nire CDak hartzeko baimena izango duzu. Baina, hori bai, ustelen bat badakarzu... ez CDrik, ezta ikastolako kanpaldira joaterik ere!

Eta alde egin zuen gelatik, gerra batean etsaia txikitu eta zapaldu duen garailearen antzera. Urtzi izozturik geratu zen, handik mugitu ezinik.

Amak laztan egin zion eta, ondoren, joan egin zen irribarretsu. Baina Urtzik ezin zuen erreakzionatu. Kanpaldira joaterik ez! Hiru hilabetez horrekin ametsetan! Hiru hilabetez kanpaldi-eguna noiz helduko zain! Hilabete baizik ez zen geratzen maiatzeko asteburu hura heltzeko. Huraxe zuen Oihaneren ondoan egoteko aukerarik onena! Eta orain, tupustean, aita mila zatitan hautsi zion ametsa. Ez zegoen eskubiderik!

13

Oskar arineketan abiatu zen komunerantz, Urtzi txunditurik zegoela aprobeztatuz. «Goizeroko leloa —pentsatu zuen Urtzik, bat-batean nekatuta sentituz—. Aita komun batean eta anaia txikia bestean. Etxe honetan, gutxienez, lau komun behar ditugu. Bai horixe!».

Baina une hartan ez zegoen anaiarekin beste sesio batean hasteko umorez. Berdin zion komu-nera lehena edo azkena sartzeak edo sekula santan ez sartzeak ere. Bost axola berari munduko komun guztiak, kanpaldira joan gabe geratzen bazen.

Barru-barrutik negarrez, leihora hurbildu eta kanpoaldera begiratu zuen. Eguzkiak kolorez tintatuak zituen gauza guztiak eta eguna oso alaia

zen. Zuhaitzen berde artetik txoriak kanta-kantari zebiltzan, goiz berriari egun on esaten. Jendea bere zereginetara abiatzen zen, pozik eta gogotsu. Jakina, udaberrian zeuden bete-betean.

14 Urtziren bihotzean, ordea, negua zen. Lainoz beteriko negu euritsu haietakoa. Leiho hartatik, mundua triste, goibel eta ilun ageri zen. Euria ari zuen bere bihotzean.

Eta ez zen gutxiagorako. Ez horixe! Berak bizitzari eskatzen zion apurra bizitzak ez zion eman nahi: alde batetik, Oihanek ez zion kasurik egiten eta, bestetik, ezin zituen azterketa guztiak gainditu. Hurrengo astelehenean ziren hastekoak azterketak. Naturakoa zen lehena eta petral baino petralago zeraman gaia. Gainera, informatikan ia-ia irabazita zuen ustela. Asteburu osoa liburuei josita emanda ere, ez zuen erreakzionatzeko astirik izango.

Bera, berriz, ez zen batere tuntu, inola ere ez, aurreko urteetan txukun ibili zen-eta. Baina, urte horretan, Oihane besterik ez zuen gogoan. Neska lehen eskola-egunean ezagutu zuen eta etsi-etsian maitemindu zen berarekin. Baina, tamalez, neskak ez zion jaramonik ere egiten.

Edortak erasora pasatzeko esaten zion. Edorta adiskiderik minena zuen, bere sekretuen berri zekien bakarra. Edortaren ustez, neska batek norberari *erreparatu* behar zion, lehenengo eta behin. Urtzik oso kontuan hartzen zituen bere adiskidearen iritziak. Hark bi anai-arreba nagusi zituen eta beraiengandik ikasia zuen jakin beharreko guztia.

Beraz, norberari erreparatzea zen kontua. Zorritzarrez, Oihanek Urtziri erreparatu ahal izateko, maiatzeko kanpaldia bezalako abagunerik ez zen beste inoiz gertatuko, igandero mendira egiten zituzten irtenaldiak ez baitziren batere aproposak horretarako. Lagun gehiegi, zarata gehiegi, kuadrillatik baztertzeke aukera gutxi... Aitaren erruz, bere ametsa ez zen inoiz beteko!

Aitarekin, azken boladan, oso harreman zail eta istilutsuak zituen. Garai batean, ordea, ez zen hala izan. Ume kozkorra zenean, gauza piloa egiten zuten biek elkarrekin: mendian ibili, futboleak jokatu, zinemara joan...

Oskarren erruz izango ote zen? Oskar bera baino nahiago ote zuen aitak? Batzuetan, baiezkoan egoten zen; beste batzuetan, berriz, barregarria iruditzen zitzaion hala pentsatzea. Ez, aitak ez

zuen bera ulertzen, horixe zen arazo bakarra. Ez zegoen prest hamahiru urteko gazte baten beharrak eta sentimenduak ulertzeko.

16 Ilea tente edo erori, luze edo labur, beti disgustura egoten zen aita. Janzten zuen arropagatik ere errieta egiten zion. Eskeko itxura harekin ezin zela kalera irten eta horrelakoak esaten zizkion. Azken boladan, gainera, belarritakoak gora eta behera ari ziren etxean. Hura ez zela patxadazko itxura eta bururatu ere ez egiteko bota zion egun batean.

—Jolin, aita —kexatu zen bera—, zure gaztarooan *hippy* guztiek eramaten zuten-eta.

—Bai, baina haiek, behintzat, protesta moduan erabiltzen zuten. Zuek, aldiz, zeren aurka egin nahi duzue protesta, bada? Gurasoon kontura primeran bizi zarete. Ez duzue inoiz dirurik falta poltsikoan. Kolpe zorririk jo gabe beti. Belarritakorik? Bai eta zera ere!

Horrela amaitzen ziren eztabaida guztiak, edo, hobeto esanda, aitaren bakarrizketak. Nola eztabaidatu, ordea, beti haserre, bekozko jarrita, agiraka zebilen aita batekin? Etxe hartan ez zegoen demokraziarik. Ez, jauna!

Amorrua burura igo zitzaion. «Ederto —pentsatu zuen—, maite ez banau, hamazortzi urte bete bezain laster, etxetik joango naiz eta hor konpon. Soilik ama gaixoa bisitatzera etorriko naiz. Baina aita etxean ez dagoenean, noski».

Une hartan Oskar itzuli zen gelara.

—Komuna libre duzu —esan zion alai, lehengo liskarra erabat ahaztuta.

Goiz hartan dena zegoen aldrebestuta: Oihane ametsetan baizik ez zion jaramonik egiten, ikasketetan porrot egitera zihoan buruz behera, aitak aurretik ibiltzen zuen beti, anaiak ez zuen bake santuan uzten...

Bai, leiho hartatik mundua triste, goibel eta ilun ageri zen, euria ari balu bezalaxe. Bai, jauna, bai, euria ari zuen bere bihotzean.

Azkenean, halako batean, mugitu eta komunerantz abiatu zen.